

Gomendatutako liburua:

-Bürger, Peter. "Teoría de la vanguardia". Ediciones Península, Barcelona. 1987

ABANGOARDIA ARTISTIKOEI BURUZKO TEORIA

1-Lehen Mundu Gerraren aurreko testuinguru historikoa:

Mundua europar potentziaren menpean zegoen XX. mendearen hasieran. Boteretsua zen Europa horren baitan, ordea, tentsio handiak bizi ziren eta horiek Lehen Mundu Gerra eragin zuten.

Iraultza industrialari esker, Europa munduko lehena zen hainbat arlotan: teknologian, ekonomian eta arlo militarrean. Europarren nagusitasun horrek laster pentsarazi zien europarrei mundua zibilizatzea deituta zeudela. Beraz, XIX. mendearen amaierako Europako potentziek Afrika osoa, Asia eta Ozeaniako zati handi bat menperatu zuten, Lurreko azalaren %60aren jabe izan arte. Herrialde horien kulturetatik abangoardietako artistek eragin inportanteak jaso zituzten: arte beltza eta Ozeaniako artea azpimarratzekoak dira.

Europarren eskuetan zeuden herrialdeak bizileku, produktuentzako merkatu eta industrientzako lehengai iturri izan ziren. 1914. an munduko eskulanaz egindako produktuen erditik gora European ekoizten zen, eta munduko merkataritza mugimenduen hirutik bi baino gehiago Europako portuetatik abiatu edota bertara iristen zen. Europa, eta neurri batean Japonia eta EEBB, munduko lantegi eta banketxe bihurtu ziren. Mundua gutxi batzuren kontrolpean egoteari inperialismoa deritzo, eta inperialismoaren urrezko garaiak 1914.an jo zuen gailurra. Bidenabar, futurismo mugimenduak kolonialismoa eta indar militarra bultzatu zituen.

Inperialismoak Europako potentzien elkarren aurkako jarrerak bultzatu zituen. 1906 eta 1911 artean Frantzia eta Alemaniaren arteko gerra lehertzeko zorian egon zen, Marokoko ekonomiaren kontrola zela medio. Baina tentsioa areagotu zen Europaren baitan: Alemaniak Erdialdeko Europa osoa menperatu nahi zuen eta zabalkuntza germaniar horrek (pangermanismoa) mesfidantza eragin zuen gainontzeko potentziengan: Britainia Handian, Frantzian, Errusian eta abarretan.

Europako potentziak itun zaharrak sendotzen edota berriak sortzen hasi ziren, bakoitzaren interesen arabera. Potentziak gerrarako prestatzen hasi ziren. Inork ez zuen onartzen gerra nahi zuenik, baina indartsuak ziren herrialde guztiek edozer egin zuten gerrari begira. Arma-ekoizpena izugarri handitu zen, soldaduska luzatu zuten eta izpiritu abertzalea deitzen zutena bultzatu zen. Egoera hori geroago espresionismoaren pintoretan islatu zen. Militarismoa hezkuntza eta iritzi publikora zabaldu zuten, eta mugimendu sozial eta baketsuei aberriaren aurkako mugimenduak izatea leporatzen zieten (adibidez, Jean Jaures-ek, politikoa, antimilitarista eta sozialista famatua zena, langileen eskubideak defendatzeko "L'Humanité" egunkaria fundatu zuen eta Lehen Mundu Gerraren aurkako kanpaina politikoa eta baketsuak antolatu zituen). Espresionismoan, militarismoa eta militarrek kritikatuak izan ziren artisten artelanetan.

Tentsio egoera horretan ez zen zaila gerra pizteko aitzakiak aurkitzea eta horixe gertatu zen: 1914.eko ekainaren 28an Frantzisko Fernando artxidukea hil zuten Sarajevon. Lehen Mundu Gerra eztanda egin zuen. Buruzagi militar askoren ustez, gerra laburra izango

zen eta ez zuen estatuen arteko mugetan aldaketa handirik eragingo. Baina errealitatea bestelakoa izan zen: gatazkak lau urte iraun zuten eta aldaketa handiak eragin zituen Europako mapan: lau inperio handi erori ziren, alemaniarra, austro-hungariarra, otomanoa eta errusiarra. Abangoardien garapena gelditu zen. Artista batzuek gudara edo gerrara joan behar izan zuten. Beste batzuk Estatu Batuetara joan ziren.

2-Lehen Mundu Gerraren ondorengo testuinguru historikoa:

Gerra luze eta odoltsuaren ondoren, Europako biztanleek betiko bake iraunkorra lortu nahi zuten, baina ez zen horrelakorik gertatu. Galtzaileei ezarri zitzaizkien zigorrak oso gogorrak izan ziren eta haiek lurra galdu zituzten. Beraz, egonezina eta mendeku nahia nagusitu ziren haiengan.

Parisko Konferentzian 1919.an, galtzaileek ezin izan zuten erabakietan parte hartu eta irabazleek inposatutako baldintza guztiak onartzera behartu zituzten, inolako aldaketarik egin gabe. Konferentzia horretan Nazioen Elkarte sortu zen, hurrengo helburuekin: bakea zaintzea eta etorkizunean sor zitezkeen gatazkak negoziazioaren bidez konpontzea.

Versaillesko Itunak: Alemaniari egozten zion gerraren ardura eta oso zigor ekonomiko gogorrak inposatu zitzaizkion. Espresionismoan islatu zen egoera hori.

Gerraren ondorioek abangoardietako artista batzuegan lan egiteko eran aldaketak ekarri zituzten, haiek sufritzen ari ziren espresibitate mingotsa errepresentatuz. Adibidez, Galtier-Boissière-k “Elbarrituen desfilea, 1919ko uztailaren 14an” koadroa margotu zuen, gerraren ikuspuntu tragikoa erakutsiz. George Grosz izan zen alemaniar burgesia eta militarrei buruzko eszenen marrazkilari adierazgarriena eta mingarriena.

Lehen Mundu Gerra amaitu ondoren, asko ziren herrien arteko harmonia iraunkorrean sinesten zutenak. Zentzu horretan, herrialde askotan biztanleria eguneroko gauzez gozaten hasi zen. Europar gizarteek gerraren izua ahaztu nahi zuten eta unean unekoaz gozaten saiatu ziren. Historialariek urte horiei “urte eroak” edo “20.eko hamarkada zoriontsua” izendatu zieten. Abangoardietako artistek arrakasta izugarria lortu zuten, eritmo berriak sortu eta zabaldu ziren (jazz, charleston eta tangoa) eta emakumearen askapen mugimendua indartu, haien eskubide zibilak eskatuz eta portaerak liberalizatuz.

20eko hamarkadaren ezaugarri nagusia oparotasuna izan zen, gerrak markaturiko aurreko hamarkadako gosete eta urritasunaren ondoren. Urte horietako gizartearen ezaugarriak oso kontrajarrira zeuden: fintasun, dotoretasun edo abangoardia mailarik altuenekin batera, ikuskizunak, kirolak eta kultur adierazpenak jende arruntari zabaldu zitzaizkion. Komunikabideak (irratia eta zinema) masifikatzen ziren bitartean, hiriak neurririk gabe hazten ziren eta klase ertainak ordura arte gutxiengo aberatsen bititza mailara heltzen ziren. Aurreko hamarkadak eragindako heriotzen mina ahaztu ondoren, kezkarik gabe bizitzeko gogoia zegoen, modu osoan, neurririk gabe, gehiegikerien beldurrik gabe.

Zinea, denborapasa eta komunikazio biderik garrantzitsuena bilakatu zen ehundaka milioi lagunentzat. Zineak jokamolde, moda eta mito berriak sortu zituen, adibidez, Rodolfo Valentino. Irratiak ere antzeko eragina izan zuen, etxeko lasaitasunean sartu baitzen. Irratiak jende guztiarengana hurbildu zuen ordura arte egunkarietako irakurleentzat mugaturik zegoen informazioa. Biztanleengan denborapasa berriak sortu

eta kontsumoa ere indartu zuen, batik bat publizitatearen bitartez. Denborapasarako tresnen kopurua eta tamaina ere handitu ziren: zineak (espresionismo zinematografikoa), antzokiak, jatetxeak eta kabaretak, adibidez, Voltaire Kabareta, Dada mugimendua sortu zen lekua eta antzezkiun artistikoak ikus zitezkeen lekua. Voltaire Kabaretan, “Der Blaue Reiter” taldeko pintore espresionistak eta Hugo Ball, performance dadaisten egile, elkartu ziren. Beste kabaret batzuetan talde artistikoak (poetak, margolariak, eskultoreak eta abarrak) bildu ziren beraien egitarau artistikoak prestatu eta arteari buruzko hitzaldiak garatzeko.

“Hogeigarreneko hamarkada zoriontsuko” gizartea gehienbat hiritar bilakatu zen. Eta ezaugarri hori abangoardietako mugimenduetan era garbian agertu zen. Hiriko biztanleriaren beharrak betetzeko merkatu zentralak eta erostetxe handiak sortu ziren, aisialdirako eta ikuskizunetarako aretoak egin ziren. Gero eta arropa eta oinetako gehiago eskatzen zenez, jantzigintza eta modari buruzko aldizkariak sortu ziren, klase ertainak “uniformatuz” eta modaren munduan sartuz. Adibidez, emakumeen moda eta ohiturak ere libreagoak bilakatu ziren hogeiko hamarkadan. Emakumeek moztu egin zuten gonon luzera, azpiko jantziak arinagoak izan ziren eta ilea gizonen modura mozten hasi ziren. Pentsamolde berri horrekin batera, herrialde askotan, emakume ezkongabe gehienak lan munduan sartu ziren eta emakumearen boto eskubidea onartu zen. Horrela, emakumea mundu berrian sartu zen.

Dena dela, abangoardietako mugimendu artistiko batzuetan emakumeen funtzioa oso txikia eta herabea izan zen, izen gutxi besterik ezin ditugu aipatu, adibidez, Mary Cassatt (inpresionismoan) Sonia Delaunay (orfismo eta kubismoan), Maria Blanchard (kubismoan), Georgia O’Keefe (Ipar Amerikako pinturan). Emakumeen izen gehien eman dituen Estatu Sobiet Batasuna izen zen, konstruktibismoaren menpean, adibidez, Natalia Gontcharova (rayismoan), Galina y Olga Hagova, Aleksandra Aleksandrovna, Sergeevna Popova, Olga Rozanova, Varvara Stepanova; Marie Cerminova, Marie Troyen, Frida Kahlo y Marie Laurencin (surrealismoa) eta abar.

Gerra amaitu eta gero, Europak munduan zuen kokapen hegemonikoa galdu egin zuen, Japonia eta Estatu Batuen mesedetan. Estatu Batuak munduko lehen potentzia bihurtu zen, Wall Street-ek eta dolarrak Londreseko Bursaren eta libra esterlinaren lekua hartuz.

Trostkyk eta Leninek nazioarteko iraultza aldarrikatu zuten eta zenbait estatutan boltxebikeena bezalako altxamenduak gertatu ziren. Europako estatuak oso kezkatuta agertu ziren. Komunismoaren beldurra zela medio, erreakzio gogorrak izan zituzten buruzagiek: erregimen autoritarioak ezarri eta iraultzaileen aurkako errepresioari ekin zioten, adibidez mugimendu espartakista, ezker muturreko ideak zapaltzen. Tentsiorik handiena Alemanian ezagutu zen, Weimar-eko Errepublikan. Egoera honek ondorio nabarmenak eragin zituen espresionismoan. Surrealismoa adibidez komunismoarekin erlazionatu zen.

Azpiegitura ekonomiko ahula hobetzen saiatu baziren ere, erregimen berriak ez ziren horretarako gai izan. Ekonomiaren krisi sakona, langabezia eta arazo sozialak nagusitu ziren hainbat faktoreren ondorioz: armaden desmobilizazioa, gerrarako industriaren birmoldaketa, gerrak utzitako zorra, merkataritzaren berregituraketa mantsoa eta kanpo merkatuen galera.

Garai horretan hiru erregimen totalitarista berri sortu ziren: faxismoa Italian (Mussolini), nazismoa Alemanian (Hitler) eta Stalinek Sobiet Batasunean ezarritako sistema komunista. Sistema horietan guztietan alderdi bakar batek hartu zuen estatuaren gobernu, eta hiritarrei jokabide eta pentsaera eredu jakin batzuk inposatu zizkieten. Garaiko mendebaldeko kulturaren oinarritzko abiaburuak (askatasuna, arrazoia eta norbanakoaren eskubideak) ezabatu eta bestelako balioak inposatu ziren: nazioa, arraza edo klasea. Egoera horretan, abangoardietako artistek ezin zuten lan egin eta gobernu totalitarioak abangoardietako artistak jazartzen hasi ziren, beraien sormen askatzaile desegiteko asmoz. Konstruktibismoak, futurismoak eta espresionismoak arazo eta oztupo ugari izan zituzten bere lan esperimentalekin jarraitzeko. Sistema politiko horiekin, abangoardietan sormen teknikoak eta artistikoak lortutako artistak, ohiko pintura eta pintura tradizionala egitera behartuak izan ziren.

3.1-Abangoardiaren kontzeptua:

“Abangoardia” kontzeptuak historialari batzuei akatsak, hutsegiteak eta ekiboak sortarazten dizkie, beraz esamolde hori arretaz aztertu behar da. Jakintzagai guztietan aurkitzen da kontzeptua, baina bakoitzean bere mugak, bere ezaugarriak eta bere baldintzak ditu, horrexeagatik jakingaiaren arabera sakonki aztertu beharra dugu, eta noski, artean bere ezaugarri zehatzak ditu. Adibidez, zentzu desberdinak hartzen ditu abangoardiei dagokionez, musika arloan, politika arloan edo artean arloan. Oso arrunta da abangoardiako zinema, literatura, musika, arkitektura entzutea, baina haien arteko desberdintasunak onartu behar dira.

Arteari dagokionez, abangoardiak dira XIX. mendearen amaieratik 30. hamarkadaren amaiera bitartean garatu ziren joera artistiko desberdinak. Egoera horretatik “modernitatea” terminoa sortzen da, eta era horretan abangoardiak eta modernitatea elkartu ziren, garaiko artearen historia ulertzeko. Testu askotan beste esamolde batzuk erabili ohi dira: abangoardia historikoak, abangoardia heroikoak eta abar.

Abangoardiako mugimendu guztietan zeuden artistek arte, politika, musika eta jakintza arloetan konpromiso soziala izan zuten ezaugarritzat. Jarrera horrek esan nahi zuen artista horiekin “ismo” desberdinak finkatzen ari zirela eta modernoaren auto-kontzientzia garatzen ari zela. Adibidez, El Lissitzky eta H. Arp artistek zegoeneko 1925.ean “Los ismos del arte” izenburua erabili zuten. 1922. an Parisen surrealismoa Izpiritu Modernoa Defendatzeko Kongresua antolatzen saiatu zen, haiek kubismoan, purismoan, dadaismoan eta surrealismoan izpiritu modernoaren ezaugarriak ikus zitzaizketen.

Abangoardiari dagokionez, beste ezaugarri batzuk ditugu: alde batetik, herrialde batean mugimendu artistiko desberdinak elkar daitezke, adibidez, Errusiako abangoardian konstruktibismoa, suprematismoa, kubismoa eta beste batzuk lotu ziren. Bestetik, mugimendu desberdinen arteko harremanak sortu ziren, adibidez, espresionismoa dadaismoarekin, konstruktibismoa dadaismoarekin, surrealismoa kubismoarekin, eta abar. Era horretan, ezin da zentzu linealari buruz mintzatu abangoardiako artearen historian, kontzeptu guztiak elkartzen baitira.

Abangoardiak formaren iraultzetan dagoen paradigma bezala ulertzen dira, edo ohiko formak, imajinak eta errepresentazioak apurtzen dituen aldaketa bezala, modernitatea eraikitzeko eta mintzaira artistiko berria sortzeko asmoz. Abangoardia gehienetan, futurismotik aurrera, artelanak egin eta aurkeztu aurretik beraien egitarau artistiko,

sozial eta iraultzaileak jaurki ziren. Manifestuak artelanen sorkuntza baino lehen agertu ziren.

Hitz batez, esan daiteke abangoardien lorpen inportanteena formaren eta kolorearen iraultza izan zela, baina beraien amets utopikoak eginezinak izan zirela.

Lehen Mundu Gerraren aurretik abangoardiako izpiritu borrokalaria ez zen oso garbia, baina gerraren ondoren abangoardiek, “arte ofizialaren” kontrako erreakzio bat bultzatzeko asmotan, borroka eta gatazkaren aldeko jarrera onartu zuten. Haien estrategia “arte ofizialaren” amaiera lortzea izan zen eta artearen bidez mundu hobe batean bizitzea. Hitz batez, gizakiaren amets utopikoak artearen bidez lortu ahal izatea. Abangoardietan zeuden higikunde artistikoak egoera sozial, politiko eta kultural zehatz batekin loturan ulertu behar dira.

Arte historiari buruzko testu batzuetan garaiko artea abangoardiarekin identifikatzen da. Identifikazio horrek gaizki-ulertu batzuk eragin ditu, eta espezialista batzuren ustez, Valeriano Bozalen ustez adibidez, zaila egiten da XX. mendeko artista famatu eta une artistiko inportantei buruz benetako ikerketetan sakontzea, horrexeagatik termino hauek desberdinu behar dira, artearen historiari buruzko ikerketaren eta ikasketaren bidea garbitzeko.

Beste mintzaira artistiko bat sortu zen eta formaren eta kolorearen aldetik erradikalismo bat bultzatu zen. Arteak ohiko errepresentazioa zalantzan jarri zuen. Abangoardiek arte primitiboa aurkitu zuten, bere ezaugarri artistikoak eta aukera estilistikoak erabiliz, hitz batez, arte primitiboa, arte beltza edo Ozeaniako artea duten askatasuna aprobetxatuz. Orduan, iragan edo tradizioan ez zegoena irudikatu nahi izan zuten, adibidez, forma abstraktuak, kolore anormalak, gorputz-deskonpozioak eta abar. Artistek plano praktikoetan eta teorikoetan, pinturan, eskulturaren, zineman, grabatuan egin zuten lan. Haien sortutako artelanek askatasun artistikoa islatu zuten, abangoardiako artearen historia finkatuz. Mintzaira artistikoaren arabera, modernitatean edo klasizismoan mugitzen garen jakingo dugu eta zentzu honetan modernitate barruan sartu gara.

Abangoardiekin, forma naturalisten errepresentazioan oinarritzen zen “topikoa” hautsi zen. “Errealitatea imitatzea ez da beharrezkoa, baizik eta objektibitatean oinarritzen ez den beste errealitate berri bat lortu behar da”. 1876tik 1887.era bitarteko Friedrich-en eta legelari, aditu, bildumatzailer eta mezenas zen Konrad Fiedler-en testuetan aipatu zen; forma artistikoak gure errealitatean dauden gauzak ezagutzeko era batean oinarritu zirela eta imitaziotik urrundu behar zirela. XIX. mendearen azken urteetan, formaren ideiak garrantzi handia lortu zuen, batik bat Klimt eta Hodler-en lanetan.

Kant-en teorietan eta garaiko ikasketa psikologiko batzuetan oinarrituz, Fiedlerrek iraganeko arauetan oinarritzen ez den jarrera artistikoari ekin zion. Orduan, artearen bidez, ikuslea errealitatearen barruan sar zitekeen, baina errealitate berri batean, mimetismoa onartzen ez duen errealitate batean, lehen izkutatuta zeuden forma eta kolore berriak erabiltzen zituen errealitate batean.

Abangoardietan, existitzen diren gauzei buruz artelanaren autonomia eta mintzairaren joera sortzailea ikusi behar da. Teoria horietatik aurrera, beste batzuk agertu ziren, aurreko teoriekin harremanetan jarritz, adibidez, Worringer-ek, artearen historialari famatuak, formaren baldintza semantikoa, ornamentazioaren edo apainketaren forma

abstraktua eta espresioaren arrazoia aztertu zituen. Bere ikerketek eta ikasketek historiografia eta garaiko artearen historiaren ulermena argitu zituzten. Eta zentzu horretan, abangoardiako artearen historia hobeto uler zitekeen. Hitz batez, asmakuntzen historia da abangoardiako artearen historia. Aldaketak lortzeko asmo horiek Ilustraziotik, XVIII. mendeko kultur mugimendutik zetozen, baina gerora joera praktikoa zen eta benetako aldaketak egin ziren. Beharbada, aldaketa bortitzena kubismoak egindakoa izan zen, ez bakarrik formaren aldetik, baizik eta beste higikunde artistiko batzuetan izan zuen eraginarengatik. Adibidez, futurismoan, kubo-futurismoan, neoplastizismoan, suprematismoan eta abarretan. Bere eragina 1913tik aurrerako pinturan zehar hedatu zen.

Orokorrean, abangardia hitza artistaren jarreretan eta historiografiak egin zituen lanetan erabilia izan ohi zen. Beste aldi historiko batzuk ikusiz, termino berri baten gisara agertu zen. "Abangardia" hitza Erdi Aroan erabili zen lehen aldiz, mintzaira militarri buruzkoa zena. XIX. mendearen lehen hogeita bost urteetan sozialista utopikoen testuetan ere agertu zen terminoa. Geroago, XIX. mendearen azken urteetan mintzaira politiko zehatz batean erabili zen batik bat, eta Lehen Mundu Gerraren aurretik artearekin harremanetan jarri zen. XX. mendean artearen munduaren giltza-terminoa bilakatu zen.

Arte eta politika arloetan hitz horrek esanahi berdintsuak onartzen ditu: aktibismoa, hausturaren borondatea, nahia edo beharra, dokumentu literario baten agerpena, Manifestua, higikunde artistiko askoren giltza-elementu gisa. Adibidez, 1848ko Manifestu Komunista argitaratu zenetik, arte arloan manifestu asko agertu ziren, ekintzarako egitarau eta helburuen adierazpen edo azalpen publiko moduan. Askotan manifestu artistikoek dokumentu politikoetan erabilitako tonu eta mintzaira sendoen parekoak erabili zituzten. Esaterako, futuristek manifestu asko idatzi zituzten, pintura, eskultura, antzerkia, musika, zinema eta arkitekturarara egokituz.

Fedeak gizakiaren egoera hobetu nahi zuen, gizateriaren eraldakuntza garatzen eta aurreratzen saiatuz. Bidebatez, XX. mendean *orijinaltasuna* eta *berriztapena* artelana aztertzeko oinarritzko kriterio nagusi bilakatu ziren eta ideia horien jarrera esperimentalak abangardietako ekoizpen artistikoan ezaugarri ikusgarriena bat izan zen. Hurrengo ezaugarriak aurkezten ditugu: Berpizkundeko perspektiba hautsi zen; izadia irudikatze edozein kolorearen erabilera; abstrakzioa; pigmentoen ordeztasun berriak... Adibidez, kubismoan, futurismoan eta dadaismoan erabilitako paper itsatsiak, egurrak eta argazkiak; astoko pintura zalantzan jartzea; amaituta ez zegoen artelana; prozesuari arreta; objektu gutxietsiak eta hondakinak erabiltzea eta hautatzea; material galkorrak eta iragankorrak onartzea.

Eskulturaren aldetik, aldaketa guztien artean hurrengoak aurki daitezke: iraganean ordura arte erabili ez zituzten teknikak eta materialak agertu ziren: altzairua, burdina, plastikoa, eta abar; abstrakzioa....

Terminoak bi ideia erakusten dizkigu: 1- Borrokaren ideia eta 2- Gehien aurreko/aurkako talde txiki baten ideiak aurrera egitea. Abangardia artistikoaren ekintza talde gisa, gutxiengoan dagoen elite gisa aurkezten da. Talde horiek batzutan gehiengoaren kontrako bortizkeria onartu zuten eta finkatuen kontrako kanpainak prestatu zituzten. Hasieran gizarteak eta botere instituzionalak ez zituzten artisten

eskabideak onartu, baina urte batzuk igarota, botereak eta arte-merkatuak abangoardietan sortutako artelanak eta jarrerak oztopo barik onartu zituzten.

Lehenengo berrogei urteotan hurrengo mugimendu nagusiak aurki ditzakegu: inpresionismoa, post-inpresionismoa, espresionismoa, fauvismoa, surrealismoa, dadaismoa, konstruktibismoa, futurismoa, kubismoa eta abar.

Bigarren berrogei urteetako mugimenduetan abangoardietako ezaugarriek bizirik iraun zuten. Adibidez, dada-ren ukapenak surrealismoan iraun zuen ondorio edo eragin gisa. Abangoardiazaleek aldizkarietan sortzen ziren azalpenak erabili zituzten bere artelanak sortzeko. Adibidez: Espainian: 391, Tableros, Ultra; Frantzia: La vie des lettres et des arts, Cercle et Carré, Le Surréalisme A.S.D.L.R., Minotaure; Alemanian: Blaue Reiter, Merz, Der Sturm, Bauhaus; Holandan: De Stijl, Mecano; Belgikan: Art libre; Italian: Le Futurisme, Valori Plastici; Suitzan: Dada; SESBean: Proun; eta abar. Aldizkari zerrenda hori ez dago osorik beteta. Abangoardiaetako aldizkariak askatasun handiko giroan argitaratu ziren, oso talde mugatuentzat zuzenduak ziren eta baita iraupen laburrekoak.

Abangoardiak askatasunaren ideian, zienziaren aurkikuntza eta asmakizun berrietan, gizartearen behar eta nahietan eta eragiketa berezietan oinarritu ziren. Bidenabar, lehenengo abangoardia 1874.an sortu zen: inpresionismoaren aldeko Pariseko taldea (Société Anonyme). Independenteen aretoetan Courbetek eta Manetek egin zituzten kritiken ondorioz, abangoardietako hasiera sortu zen. Orduko artistek errealitatearekin, kolorearekin, formaren behaketaren bidez eta argiaren efektu disolbagarriekin saioak egitean, abangoardiako mugimenduen historia hasi zutela esan daiteke.

Abangoardien ekarpena erabat garrantzitsua izan zen artearen bilakaeran. Inpresionisten artean, Seuraten sistematizazioak eta Cézanneren “ordenadak” azpimarratu behar dira. Horiek Kubismoan zuzeneko eragina izan zuten eta higikunde honek, aldi berean, Abstrakzio geometrikoan.

Van Gogh-en jenialtasunak inpresionismoaren beste mugimendu bat sortzea eragin zuen, alde batetik drama existentziala pinturara eramanez zuelako eta bestetik, “nabis” taldetik eta Fauvismotik igarota, sumindura artistikoa espresionismo figuratibora, dadaismora, surrealismora eta espresionismo abstraktura heldu zelako.

Inpresionismoaren ondotik Fauvismoak indar gehiago eman zion koloreari. 1905. etik aurrera Die Brücke taldea gizakiaren subjektibotasunaren hondoraino heltzen saiatu zen emaitza gordinak bilatuz. Espresionismoan forma eta kolorea subjektibotasunaren menpe egon ziren eta objektuak begibistan azaltzen zitzairen era horretan agertzen ziren. Jarrera hori pintura-eremutik at musika, antzerki, zinema eta poesiara zabaldu zen, estilo ugari sortuz eta ikerketa esperimentalak eginez. Konstruktibismoa Errusian sortu zen, abstrakzio geometrikoa ere deitzen zen. Kubismoa Parisen jaio zen Braquek eta Picassok sortu baitzuten. Picassoren “Avignon-go andereñoak” sortu eta gero, aldi beltzaren hasierarekin batera, kubismoaren arte ofizialarekiko errefusamendua areagotu zen. Artea zentzuzko eragiketa arrazional modura ulertzen zen, objektuak deskonposatu eta sintesi geometrikoetan berregitaratu baitzituzten.

Mugimendu horien guztien ondorioz, Berpizkundetik bizirik zirauen naturalismoa gaitzestea lortu zen. Sentimendu sentsual eta hedonistaren aurkako borroka adierazten hasi zen. Zentzu gabeziaren kontzientzia azaldu zen krisi-sentimendu orokor gisa.

Dadaismoa halako bizipen motak bideratzeko ahaleginean sortu zen. Arrazonamendu eta logikaren aurka anarkia eta askatasuna aldarrikatu zituzten: “zernahi objektu bihur daiteke artelan”.

Estilo korrante nagusi hauek hurrengo bigarren berrogei urteetaraino luzatu ziren, mugimendu berrietan haien ezaugarriak agertu zirelako. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo higikunde artistikoek (arte objektuala, pop artea, op artea eta abar) abangoardietan garatutako ideietan sakondu zuten. Hutsetik sortzen den arte-mugimendurik ez dagoela ondoriozta daiteke.

Une kultural zehatz batean, edozein erreferentzia ematerakoan, baldintza politiko, kultural eta sozialak aipatu behar izaten dira. XX. mendearen egoera politiko eta sozialari dagokionez, bereziki konplexua izan zela azpimarra daiteke. XIX.-XX. mendetan hainbat aurrerapen zientifiko eman ziren: erlatibitatearen teoria, abiazioa, espazio-aroa, argazkigintzaren asmakuntza, zinema eta ondoren telebista; Freud-en psikologia eta gizakiaren barne-mundu ezkutuari inkontzientearen garrantzia; Errusiako Iraultza eta munduko bi gerrate nagusiak; Estatu Batuen aurrerakada, lehen mailako potentzia ekonomiko, beliko eta politikoa bihurtzeraino.

XX. mendea krisi mendea izan zen eta halako krisialdi eta aldaketa izugarrien aurrean, artearen eta artisten erantzunak gizartearen arazoak islatu zituzten. Arte arlo gehienek eraberriketa ezagutu zuten. Sail desberdinetako artistak antzeko mugimenduetan eta joeretan elkarturik ikusi zitezkeen. Adibidez, “inpresionismo” izenarekin agertu zen Monet-ek eta bere lagunek egindako pintura, baita Debussy-k egindako musika ere. Era berean, Schomberg eta Kandisky-ren espresionismo abstrakturako joerak ikus daitezke edota Picasso eta Strawinsky-ren bizitza eta eboluzioa.

Pinturaren eta eskulturaren arteko bereizketa tradizionala jadanik desagertua dela esan beharrekoa da. Nahasturik agertu ziren hainbatetan eta “objektu mistoak” sortu ziren, pintura eta eskultura arteko objektu berriak.

Bigarren Mundu Gerraren ondorengo urteetan, abangoardietan landutako hainbat amets utopiko galdu ziren. Gogoratu behar dugu XX. mendeko lehenengo berrogei urteetan amets utopikoak gizakien beharrekin harremanetan jarri zirela. Bizirik zirauten amets utopiko nagusiak hurrengoak ziren: etorkizunerako gizaki hobea eta desberdina lor zitekeela pentsatzen zen, batez ere, artearen eta arkitekturaren bitartez (konstruktibismo errusiarra, arkitektura alemana eta Italiako faxista, funtzionalismoa eta abar). Aurreko mendeko gizakiaren amets kulturalaren urteak izan ziren horiek.

Abangoardietako artistek bi jokabide-modura joka zezaketen: arte-merkatuan zeuden arauekin bizi ala egoera horretatik at geratu. Lehenengo aukera hartzekotan, prestigioaren eta merkatuaren munduan erabat sartu ahal ziren, bizi-maila altuago bat lortuz. Baina sistematik at geratu zirenek arte-merkatuaren kontra borrokatu behar izan zutela suposatzen dugu. Borroka horretan arte-modu zabalago bat eta mintzaira plastiko berri bat sortzen saiatu ziren. Ezin dezakegu ahaztu benetako konpromisoa zuten artistek klase dominatzailearengandik artea urruntzearen alde borrokatu behar zutela. Hau da, haien guztien artearen aldeko kontzientzia berriaren alde borrokatu behar zuten.

Mugimendu sozial, kultural eta artistikoak zirela eta, artistaren irudia guztiz aldatu zen. Lehen Mundu Gerraren ondorengo urteetan ikerketa artistikoek bide propioa jarraitu zuten, arte plastikoetan aurrerapen interesgarriak lortuz: arte-gaiak, hiru dimentsioen

balorazioa, jakintza teknikoak, teknologia berriak, material berriak eta abar. Batzuk hausturen eta keinu bortitzen bidez lortu ziren, beste batzuk pixkanaka, era astiroago batez. Urte horietan ohiko kontzeptu artistiko desberdinak jarri ziren zalantzan.

Arte plastikoen historia “ismo” eta mugimendu batzuren historia izan zen. Mugimendu horiek gero eta arinago igaro ziren bata besteari jarraika. Geroago abangoardiak bigarren berrogei urteetako mugimendu artistikoen iturriak bilakatu ziren. Adibidez, espresionismo abstraktuak surrealismoan bere iturriak zituen; assemblage eta pop artearen iturriak dadaismoarekin erlazionatzen ziren; op artea eta minimal artea Bauhaus-an egindako ikerketekin lotzen ziren; eta argi dago neoespresionismoak lehen espresionismoaren koloreak eta formak hartu zituela.

4-Artea eta merkatua

Abangoardiaren fenomenoak gizarte liberal-demokratiko eta burges-kapitalista batean garatu zen, batik bat. Artistaren eta artearen egoera hobeto ulertzeko merkatua eta espekulazioa kontutan hartu beharrekoak dira. Dena dela, artelanetan eman zen espekulazioa antzinatek dator, baina gaur egungo garaian negozioaren edota salerosketaren garrantzia eta eragina bizitza artistikoaren baldintza bilakatzen dira.

Orokorrean, Erdi Arotik XX. Menderarte bizitza antolatzeke hiru bide agertu ziren: sistema korporatiboa, sistema akademikoa eta merkataritzako sistema. Lehenengoa nahitaezkoa izan zen Art Nouveau eta Bauhaus-aren heziketa uler zezan. Modernitatearen aurka azaldutako hezkuntza akademikoak hainbat kultura instituzioetan bizirik dirau. Sistema korporatiboan artea lanbide bat baino ez da eta artista artisau edo eskulangilea da.

Paul Duran-Ruel (1831-1922) lehen martxante edo arte-merkataria moderno handitzat hartu izan da. Berarekin batera arte-monopolioaren borondatea agertu zen. Borondate hori eskaririk ez duen produkzioan oinarritzen zen. Bera eskari hori sortzen saiatu zen, banaka eta taldeko erakusketen bidez, artea bultzatzeko aldizkari ezpezialituak argitaratuz eta artistekin kontratu ekonomikoak sinatuz. Arte-merkataria, artelanak eginda egon aurretik berauek erostera konprometitzen ziren, diru kopuru desberdinak ordainduz, salneurriak haien kontrolpean finkatuz. Ruel-ek bere artisten erakusketak antolatu zituen atzerrian eta, bide batez, New Yorken arte-galeria bat ireki ere, artea bera nazioarteko eremura zabalduz. Paul Duran-Ruelek garaturiko prozesu horrek garaiko artearen funtzionamendua eragin zuen.

Lehen arte-merkataria famatuena agerpena Abangoardien garapenarekin lotzen da. XX. mendearen aurretik ezin da arte-merkatariei buruz hitz egin, baizik eta Eliza, noblezia eta monarkian zeuden mezenasei buruz. XX. mendean benetako arte-merkatarien irudia aurkitzen dela esan dezakegu. Adibidez, Paul Duren-Ruel inpresionismoarekin lotzen da; Ambroise Vollard (1865-1939) Cezanneren aurkikuntzarekin eta Van Gogh, Bonnard, Matisse, Derain, Vlaminck, Braque, Picasso eta Chagallen igoerarekin lotzen da; Daniel-Henry Kahnweiler (1884-1979) kubismoarekin erlazionatzen da eta Vlaminck, Derain, Picasso, Gris eta beste artista batzuen promozioa prestatu zuen.

Arte-merkataria historiko horiek ekintzaileak eta berritzaileak izan ziren eta bidenabar, asmo sortzailean hartu zuten parte, garaiko artearen prozesuak bultzatuz. Arte-merkatariek gustoa eta eskaria sortzen eta bultzatzen zituzten.

Garaiko gizartean, artistek, arte-merkatariek, arte-galeriek, arte-kritikariek, aldizkari ezpezializatuek, enkanteek edo erremateek, nazioarteko erakusketek (Bienaleak, Documenta, Arte-Azokak), arte-bildumatzaileek eta garaiko arte-museoek artearen munduan eragin handia izan zuten. Dena dela, baldintza eta eragile hauek guztiek merkatuaren menpean bizi ziren, nahiz eta batzutan arte-merkatuaren boterearen aurka azaldu.

Arte-merkatuari zegokionez, XX. mendearen lehen erdialdean Parisen kokatu zen artearen munduko hiriburu ekonomikoa izanik. Bigarren erdialdean, ordea, artearen zentru ekonomikoa New York-era mugitu zen.

Gaur egungo artista, Akademiatik aske egon arren, enpresa handien menpean dago. Une historiko-artistiko batzuetan artistek arte-merkatuaren aurkako jokabide erradikalak hartu zituzten, alternatibak bilatuz; adibidez lan egiteko erakunde berriak (sindikatuak, kooperatibak) sortuz.